



2017ko Martxoaren 8rako kartelen lehiaketarako oinarriak

- 3 kartel hautatuko dira eta irabazlea 2018ko Lasarte-Oriako martxoaren 8ko egitaraua iragartzeko kartel ofizialtzat hartuko dugu.
- 12 eta 17 urte bitarteko nahi duen edonork parte hartu ahalko du. Pertsona bakoitzak egoki deritzon adina proposamen aurkeztu ahalko ditu. Proposamenak jatorrizkoak izango dira, eta beste ezein lehiaketatan saritu gabeak.
- Baldin eta kartel guztia edo haren zati bat osatzen duten irudien jabetza intelektuala egilearen esku ez badago, kartela ezingo da aurkeztu.
- Kartel guztiak goiburu hau eraman behar dute inprimatua: "Martxoak 8 de Marzo, Emakumeen Nazioarteko Eguna, Día Internacional de las Mujeres"
- Kartela lantzeko teknika erabat libre da.
- Kartelak formatu digitalean nahiz formatu fisikoan aurkeztu ahalko dira, eta izenburu batekin identifikatu beharko dira. Kartelak ez dira egilearen izenarekin identifikatuak egongo.
 - Kartela formatu digitalean aurkezten bada, ezaugarri hauek bete beharko ditu: JPG formatua, 50x70 cm-ko tamaina eta 300 pixel hazbeteko. Artxi-boaren izena obraren izenburutzat joko da. Lanak posta elektronikoz bidaliko dira, helbide honetara: emakumezentroa@gmail.com Mezuan atxikita testuzko dokumentu bat bidaliko da, egilearen datu pertsonalak eta kontaktukoak dauzkana.
 - Kartela formatu fisikoan aurkezten bada, kartelak 50x70 cm-ko tamaina izan beharko du. Lanak Lasarte-oriako Emakume zentroan aurkeztuko dira, astelehenetik ostegunera, 9:30etatik 13:30etara eta 15:30etatik 19:30etara eta ostiraletan 9:30etatik 15:30etara. Kartelaren izenburuak haren atzealdean egon beharko du idatzia. Kartelari gutun-azal itxi bat atxikiko zaio, egilearen datu pertsonalak eta kontaktukoak dauzkana.
- Proposamenak aurkezteko epea 2017ko otsailaren 20an hasiko da eta urte bereko martxoaren 3an amaituko da.
- Lehiaketara aurkeztutako kartel guztiak www.lasarteoriasarean.eus webgunean ikusgai jarriko dira, sinadurarik gabe eta izenburuaren bidez identifikatuak. Webgunean erakusteko, egileek espresuki baimena ematen dute lehiaketara honetara aurkeztearekin. Horretaz gain, lan guztiak Antonio Mercero erakusketa-aretoan martxoaren 6tik 8ra erakutsiko dira. Bertan, lanak, bozkatu ahal izango dira.
- Herritarrek ikusgai jarriko diren kartelei buruz duten iritzia adierazi ahalko dute, eta iritzi hori aintzat hartuko da kartel irabazlea hautatzerakoan.
- Kartel irabazlea Lasarte-Oriako Udaleko berdintasun teknikariek eta gizarte zerbitzu-tako langileek aukeratu dute, eta haren erabakia apelaezina izango da.
- Irabazleak sari bakarra jasoko du, 150 eurokoa, bigarrenak 120eurokoa eta hirugarrenak 90 eurokoa.
- Kartel irabazlearen egileak Lasarte-Oriako Udalari kartel hori egoki deritzen modu eta medio guztien bidez eta nahi adina aldiz erreproduzitzeko eskubidea emango dio. Modu berean, Lasarte-Oriako udalak ere bere gain hartzen du egileari kartelean aldaketak egiteko eskatzeko eskubidea (dagozkion logoak gehitu, martxoak 8rako jarduerak gehitu, etab.), betiere lanaren esentzia errespetatuaz.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea.